



# ELKARTEEN FOROAREN HARRERA PROTOKOLOA ETA AURKEZPENA



## AURKIBIDEA

### 1. Zer da Elkarteen Foroa? Helburuak

### 2. Nortzuk parte hartzen dute

### 3. Erronkak eta jarduerak

#### 3.1. Zertan ari da eta zein erronka ditu?

#### 3.2. 2021ean eta 2022an egindako jarduerak

#### 3.3. 2023 urteko plangintzaren aurrerapena

### 4. Baliabideak eta informazio osagarria

#### 4.1. Urteko txostenak

##### 4.1.1. 2021eko txostena

##### 4.1.2. 2022ko txostena

#### 4.2. Partaidetzako web-orria: Elkarteen foroaren atala

#### 4.3. Slack plataforma



## 1. Zer da elkarteen foroa? Abiapuntuko helburuak

Elkarteen Foroa herritarren partaidetza bultzatzen duten lurraldeko elkarteen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Partaidetzako Zuzendaritzaren arteko topagune eta elkarlanerako gunea da, non partaidetza-kultura bat garatzeko ikaskuntzak eta tresnak partekatu ahal izango dituzten, eta elkarren arteko lankidetzak ahalbidetu.

Foroko kideek modu kolektiboan definitu zuten planteamendua eta plangintza 2020ko abenduan, eta, osasun-egoerarekin lotutako zailtasunak gorabehera, 2021. urtea izan zen foroaren lehen urte osoa.

Hasierako proposamenean, honako helburu hauek planteatu ziren Elkarteen Fororako:

1. **Elkar-ezagutza sakontzea**: elkarte eta eragileak beraien artean eta elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean.
2. **Lurraldean egiten den elkartegintza eta horrek gizarteari egiten dion ekarpena aitortzea, sozializatzea eta ikusaraztea**. Elkartegintza, gainera, oso anitza da dituzten xedeei eta lantzen dituzten gaiei dagokienez.
3. Herritarren parte-hartzeari buruz eta Gipuzkoan eta hortik kanpo bultzatzen diren **partaidetza-ereduei buruz hausnartzea eta sakontzea**. Zein eredu sustatu nahi dugu (inklusiboa) hausnartzea.
4. Erakundeen parte hartzearekin lotutako **prestakuntza**-beharrak identifikatzea eta horiei erantzutea.
5. Gipuzkoako Foru Aldundiak herritar eta herritar erakundeei **politika publikoetan eragiteko** eskaintzen dizkien **tresnak** ezagutaraztea: Foru Araua, Herritarren Partaidetzako Programa, diru-laguntzak eta beste batzuk.

## 2. Nortzuk parte hartzen dute?

Elkarteen Foroa Gipuzkoan prozesu, proiektu eta ekimen ezberdinen bidez herritarren parte-hartzea bultzatzen duten herritarren erakundeek osatzen dute, Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzarekin batera.

Erakundeen eta Foru Aldundiaren artean konfiantzazko eta lan partekatuko espazio bat sortu nahi da, egiteko eta harremantzeko modu kolektibo berriak aztertzen eta esperimendatzen saiatuz. Proposamena ekosistema bizia, aberatsa, anitza, irekia eta etengabe eboluzionatzen ari dena eratzea da, askotariko erakundek osatutakoa, helburuei eta gaiei dagokienez– ingurumena, kulturartekotasuna, gizarte-eraldaketa, gizarte-ekonomia, elkartegintza, euskara... –, eta, aldi berean, gizartean egiteko eta egoteko modu gisa partaidetza partekatzen dutenak.

### 3. Erronkak eta jarduerak

#### 3.1. Zertan ari da eta zein erronka ditu?

Horren bidez, elkarte eta eragileen arteko lankidetzak eta elkartrukeak aztertu eta esperimentatu nahi dira, bai eta elkarte eta eragile horien eta Foru Aldundiaren artekoak ere; horretarako bakoitzaren rola, eskumenak eta berezitasunak aitortu nahi dira eta, aldi berean, harreman publiko-sozialerako modu berriak aztertu, herritarren partaidetza indartzen laguntzeko.

Foroan parte hartzen duen elkarte eta eragile bakoitzaren ezagutza, esperientzia eta jakintza ditugu, baita Aldundiak eskaintzen dituen egitura eta baliabideak ere. Eta horrekin guztiarekin, gure helburua da baterako sorkuntza egikaritzea, alderdi bakoitzak arlo kolektiboan lagundu dezan, eta harreman eta lan-modu berriak esperimentatu ahal izan ditzagun, elkarrekiko inplikazioa oinarri hartuta.

#### 3.2. 2021.ean burututako jarduerak

##### -2021-

Elkarteen Foroari lotutako 2021eko ekintza 4 atal nagusitan banatu zen:

- a) **Osoko bilkurak:** 3 topaketa egin ziren, eta aurretiko saio bat 2020ko abenduan.
- b) **Formakuntza:** bi ekimen hauek bideratu genituen:
  - APTEseko Adriana Martinezek gidatutako saioa: lankidetzak eta elkarrekiko inplikazioa sustatzea helburu duten Elkarteen Foroa bezalako guneak bultzatzeko orduan kontuan hartu beharreko zenbait gakori buruz hausnartzeko.
  - Prestakuntza espezifikoa: “Nola hobetu gure elkarteetan egiten dugunaren komunikazioa? Sare sozialak eta komunikazio digitala”. Bi egunetan Tapuntu lantaldeko Arkaitzek eskainitako formakuntza.
- c) **Komunikazio jarraitua:** Elkarteen Foroaren slack plataforma 2021eko otsailaren 18an sortu zen: [GFA Elkarteetako Foro Slack](#).
- d) **Barne-koordinazioa:** 2021ean, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak Prometeako taldearen kanpoko laguntza izan du.

##### -2022-

2022an, Elkarteetako Foroak partaidetzaren kulturaz, metodologiez, esperientziez... hausnartu eta sakondu nahi zuen bi helburu hauekin: landutakoa Foroko erakundeentzat baliagarria izateko, eta, gainera, herritarren parte-hartzeak Gipuzkoako gizarteari egiten dion ekarpena ikusarazten eta balioa ematen laguntzeko.

Zehazki, hauek izan ziren landutako alderdi batzuk, ezagutza kolektibotik abiatuta:

- Herritarren parte-hartzearen kontzeptua eta ereduak.
- Herritarren parte-hartzearen balioa gizartearen.
- Parte-hartzeko metodologiak eta horiek prozesuetan eta emaitzetan duten eragina.

- Partaidetza-esperientziak hainbat eremutan.

Eta hori guztia lantzeko hau planteatu zen:

- Osoko bilkurak:** aurrez aurreko 5 topaketa eta aurretiko bilera bat 2021eko abenduan egin ziren erakunde parte-hartzaileen nukleoari eusteko eta gune horrekin konprometitu nahi zuten kide berriak batzeko.
- Prestakuntza:** Gune Irekiari buruzko formakuntza praktikoa (Open Space) GFAko Elkartearen Foroko elkarrekin. . Kasu honetan, Gune Irekiaren (Open Space) metodologiaren aditua den Politiki Elkartearen Mariak bere ezagutza partekatu zigun eta Gune Irekia moldatu zen eta Elkartearen Foroan lehenengo aldiz praktikan jarri genuen.
- Etengabeko komunikazioa:** Slack komunikazio-espazioa elikatzen jarraitu zen, modu kolektiboan, erakunde bakoitzak bultzatutako ekimenen ezagutza eta zabalkundea indartzen jarraitzeko.
- Egiteko moduak probatzea, esperimendatzea eta berritzea,** elkargune kolektibo gisa. Baterako sorkuntzan sakontzea, praktikatik eta bizipen pertsonal eta kolektibotik abiatuta.
- Barne-koordinazioa:** 2022an, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak Prometea taldearen kanpo-laguntza izaten jarraitu zuen.

### 3.3. 2023ko urteko planifikazioa

Gaur egun, foroa azalpen-dokumentu bat prestatzen ari da, elkarrekin Gipuzkoako udalei aurkezteko dituzten helburuak eta eginkizunak jasoko dituena.

## 4. Baliabideak eta informazio osagarria

### 4.1. Urteko txostenak

4.1.1. [2021ko txostena](#)

4.1.2. [2022ko txostena](#)

### 4.2. Partaidetzako web-orria:

[Elkarrekin foroa - Partaidetza GFA](#)

### 4.3. Slack plataforma: [Slack ELKARTEEN FOROA](#)

Elkarteen Foroaren slack plataforma 2021ean sortu zen, taldearen – eta batu nahi zuten beste erakunde batzuen – etengabeko komunikazioa errazteko. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak plataforma erabiltzeko mini-gida praktiko bat egin zuen, eta [esteka](#) honen bidez deskarga daiteke.